

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

Ebazpena: R4/2014

Espedientea: 2/2011

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 13a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurka 1. ERAKUNDEA erakundeak (IFZ --- 1) 2004. urtean jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga itzultzeko eskumenaren inguruan planteatutako gatazkari buruzkoa. Gatazka Arbitraje Batzorde honek izapidetzen du 2/2011 espedientez bakiarekin, eta Gabriel Casado Ollero dihardu txostengile gisa.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko idazkari tekniko nagusiaren 2011ko martxoaren 9ko idazki bidez planteatu zen. Idazkia egun horretan bertan sartu zen Arbitraje Batzordearen erregistroan, eta, horrekin batera, gatazka jartzeko erabakia (Ogasuneko zuzendari nagusiak 2011ko martxoaren 2an hartua) eta Foru Aldundiak gai honetan izapidetutako administrazio-espedientea aurkeztu ziren.

2. Espedientetik, honako gertakari hauek ondoriozta daitezke:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

- 1. ERAKUNDEA erakundea ("1. ERAKUNDEA" edo "erakundea", aurrerantzean) 2004ko abenduaren 29an Madrilgo notario 1. NOTARIOA jaunaren aurrean emandako eskritura bidez eratu zen. Erakundearen egoitza soziala Madrilen ezarri da. Bazkide bakarra 1. BAZKIDEA SA da, eta egoitza sozial bera du.

- Egun horretan bertan, eta notario-protokoloaren hurrengo zenbakiarekin, 1. BAZKIDEA SAK BIZKAIAN duen lur batean azalera-eskubide bat 1. ZENBATEKOA euroko zenbateko batez (gehi BEZa, hots, 2. ZENBATEKOA euroko zenbateko batez) 1. ERAKUNDEAREN alde eratzeko eskritura publikoa egin zen.

Bigarren eskritura horretan, 1. ORDEZKARIAK esku hartu zuen bi alderdien ordezkari gisa eta, presazko arrazoiak aipatuta, 1. ERAKUNDEAREN hitzezko mandatari gisa. Hori dela-eta, notarioak ohartarazi zuen beharrezkoa zela erakundearen administrazio-organoaren berrespena, eta organoak berretsi egin zuen.

- 2005eko urtarrilaren 17an, erakundeak 036 zenbakiko zentsu-aitorpena aurkeztu zuen, eta, bertan, zerga-egoitza jakinarazi zuen (egoitza soziala bera zen), eta IFZ eskatu zuen (---1 zenbakia esleitu zitzaion).

- 2005eko urtarrilaren 31n, 2004ko 4. hiru hilekoari zegokion BEZaren 300 ereduko aitorpena (azalera-eskubidearen eraketan jasandako BEZa itzultzea eskatzen zen bertan), eta 390 ereduko aitorpena (zenbateko bereko kuota kengarriarekin) aurkeztu zituen erakundeak.

- Erakundearen eraketa-eskritura Madrilgo Merkataritza Erregistroan aurkeztu zen 2005eko otsailaren 4an, eta hilaren 8an inskribatu zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

- 2005eko otsailaren 15ean, egoitza soziala MERKATARITZAGUNEA merkataritzagunera (BIZKAIA) lekualdatzea erabaki zuen erakundeak. Erabakia 2005eko martxoaren 14ko eskritura publikoan formalizatu zen, eta 2005eko maiatzaren 4an inskribatu zen Merkataritza Erregistroan.

- Azalera-eskubidea eratzeko eskritura 2005eko otsailaren 17an aurkeztu zen BIZKAIKO Jabetza Erregistroan.

- BIZKAIKO 1. ERAKUNDEAREN merkataritzaguneak 2005eko martxoaren 1ean ireki zituen atak.

- 2005eko uztailaren 12an, Bizkaiko zerga-egoitza berria (egoitza soziala bera zena) jakinarazi zion erakundeak ZAEARI.

3. Espedientean, halaber, honako administrazio-jardun hauek daude jasota:

A) ZAEAREN behin-behineko likidazioa

2005eko ekainaren 13an, ZAEAREN Madrilgo Eskualde Ikuskatzailtzak erakundearen 2004ko BEZAREN inguruko jardun partzial batzuk hasi zituen. Jardun horien ondorioz, 2005eko ekainaren 28ko adostasun-akta egin zen, eta, bertan, itzuli beharreko 2. ZENBATEKOA euroko zenbatekoko behin-behineko likidazioa egitea proposatu zen. Itzultzea 2005eko uztailaren 29an erabaki zuen ZAEAK.

B) Ondorengo jardunak

- 2008ko ekainaren 11n, ZAEAREN Madrilgo Ordezkaritza Bereziaren Ikuskatzailtzako Eskualde Bulegoak data horretako idazki bat bidali zion ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualde Ikuskatzailtzari. Idazki

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko bidezko organoei erakundearen egoitza aldatzeko eskaera igortzeko (atzeraeraginez eraketa-datatik aurrera) eta, horren ondorioz, BEZaren itzultzea ZAEARI transferitzeko eskaera igortzeko eskatzen zen.

- ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziaren Ikuskatzailetzako Eskualde Bulegoak erakundearen zerga-egoitzaren egiaztapenari buruzko txosten bat egin zuen, eta, bertan ondorioztatzen zenez, erakundearen zerga-egoitza BIZKAIAN zegoen eratu zenetik.

- 2009ko martxoaren 11n, ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziaren Erakunde Harremanetarako Eskualde Bulegoak data horretako idazki bat bidali zion Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailari, eta, bertan, erakundeak BIZKAIRA egindako egoitza-aldaketari 2004ko abenduaren 29tik atzeraeragina aplikatzeko eskatzen zion.

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Ikuskaritza Zerbitzuak erakundearen zerga-egoitza egiaztatzeko jardunei buruzko txosten bat igorri zuen 2009ko maiatzaren 29an. Bertan ondorioztatzen zenez, zerga-egoitza Madrilen zegoen 2004. urtean, negozioen zuzendaritza eta administrazio-kudeaketa Madrilen baitzeuden.

- 2009ko ekainaren 5eko idazki bidez, Bizkaiko Foru Ogasunaren Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuko buruak, ZAEAREN proposamenari erantzuteko, aurreko txostena igorri zion, "txostena aztertu ondoren proposamena berresteko, osatzeko, edota bi administrazioak biltzeko, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren puntuan aurreikusitako 'egoitza-aldaketari buruzko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

lantaldearen ondorioen' 5.3 puntuan aurreikusi bezala". Erakundearen zerga-egoitza finkatzeko prozedura etenda geratu zen handik aurrera.

C) ZAEAREN beste likidazioa

2010eko abuztuaren 31n, 1. ERAKUNDEAK data horretako idazki bat bidali zion Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailari (sarrera-erregistroa 2010eko irailaren 6koa da, baina irailaren 1eko posta-zigilua du). Idazki horren bidez, jakinarazten zion ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziak erakunde horri 2004ko ekitaldiko BEZAREN behin betiko likidazioa egiteko egintza bat jakinarazi ziola 2010eko abuztuaren 3an (aurreko eguneko datarekin). Egintza horretan, 3. ZENBATEKOA euroko zenbatekoko zerga-zorra ezarri zen (2. ZENBATEKOA euroko kuota gehi 4. ZENBATEKOA euroko berandutze-interesak).

Aipatutako likidazio-egintzan adierazten zenez, likidazioa 2009ko maiatzaren 12an hasitako jardun batzuen ondorioa da, eta emaitza 2010eko ekainaren 15eko A-ZENBAKIA desadostasun-aktan dokumentatu zen. Egintza horren aurrean, erakundeak erreklamazioa aurkeztu zuen Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusian. Arbitraje Batzorde honek ez du erreklamazio horren egoeraren berri.

D) Bizkaiko Foru Aldundiaren ondorengo jardunak eta gatazkaren planteamendua

ZAEAREN jardun horiek aztertu ondoren, Arbitraje Batzordean gatazka planteatzeko prozedura hasi zuen Bizkaiko Foru Aldundiak. 2010eko abenduaren 21ean, Foru Ogasunaren Ikuskatzailetak txosten bat igorri zuen, eta, bertan ondorioztatzen zenez, bidezkoa zen ZAEARI Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13. artikuluan aipatutako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

eskumengabetasun-deklarazioa jakinaraztea. Txosten horretan oinarrituta, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak proposamen hori egin zion Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiari 2011ko urtarrilaren 10ean. Zuzendariak onartu egin zuen proposamena, eta bidezko erabakia hartu zuen 2011ko urtarrilaren 10ean, zeina 2011ko urtarrilaren 12an jakinarazi zitzaion ZAEari. Erabaki horretan, deklaritzen da "Bizkaiko Foru Ogasun honen eskumengabetasuna, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari baitagokio 1. ERAKUNDEAREN 2004ko ekitaldiko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak itzultzeko eskumena".

2011ko martxoaren 2an, Foru Ogasuneko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak beste proposamen bat igorri zion Foru Ogasuneko zuzendari nagusiari. Bertan adierazten zenez, ZAEAk ez zion erantzun Foru Ogasunaren eskumengabetasun-deklarazioari, eta, beraz, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13. artikuluko 1. zenbakian aurreikusitakoari jarraiki, ZAEAk deklarazio hori isilbidez baztertzen duela ulertu behar da. Horren ondorioz, Arbitraje Batzordean gatazka planteatzeko erabakia hartzea proposatzen zion Ogasuneko zuzendari nagusiari. Foru Ogasuneko zuzendari nagusiak proposamen horri jarraitzen zion erabakia hartu zuen 2011ko martxoaren 2an, eta 2011ko martxoaren 9an sartu zen Arbitraje Batzorde honetan.

4. ZAEAk alegazioak aurkeztu zituen zuzendari nagusiaren 2012ko abenduaren 19ko idazki bidez. Idazkiak posta-zerbitzuaren 2012ko abenduaren 20ko zigilua du, eta egun horretan bertan erregistratu zen Arbitraje Batzordean. Idazki horretan, azaldutako aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundia erakundearen 2004ko ekitaldiko 4. hiru hilekoko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota itzultzeko eskumena duela erabakitze eskatzen zitzaion Arbitraje Batzordeari.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

5. Espedientea jakinarazteko izapidean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta erakundeak alegazioak aurkeztu zituzten. Lehenak Foru Ogasunaren Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen 2013ko otsailaren 25eko idazki bidez aurkeztu zituen (idazkia hurrengo egunean, hilaren 26an sartu zen Arbitraje Batzordean). 1. ERAKUNDEAK, berriz, datarik gabeko idazki bat aurkeztu zuen, eta 2013ko martxoaren 6an sartu zen Arbitraje Batzordean.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka hau sakonean landu aurretik, ZAEAk aurrez aurkeztutako alegazioa aztertu behar da. Alegazio horren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak garaiz kanpo egin zuen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretu bidez onartutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.1 artikulua eskatutako inhibizio-errekerimendua. Aztergai dugunari dagokionez, adierazitako aginduak honako hau xedatzen du:

"Gatazka onartzeko betekizun gisa, beharrezkoa izango da gatazka planteatu aurretik zerga-administrazio eskudunak bidezkotzat hartzen duen inhibizioa eskatzea (eta, era horretan, eskumena erreklamatzeko) eta azken administrazio horrek errekerimendua baztertzea eta bere eskumena esanbidez edo isilbidez berrestea.

Adierazitako errekerimendua bi hilabeteko gehieneko epean egingo da, administrazio eskudunak bere ustez Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak urratzen dituzten egintzen berri duen egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Errekerimendu-idazkian, gatazkaren xede diren egintzak eta zuzenbideko oinarriak zehaztuko dira argi eta garbi.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

Ezein administrazio eskuduntzat hartzen ez bada, administrazio batek bestearen aldeko eskumengabetasun-deklarazioa egin beharko du, eta horrek, aldi berean, inhibitzeko erabakia hartu beharko du.

Zerga-administrazio batek bere eskumena isilbidez berresten duela ulertuko da inhibitzeko errekerimenduari hilabeteko epean (jasotzen duenetik aurrera zenbatzen hasita) erantzuten ez dionean. Halaber, zerga-administrazio bat eskuduna ez dela ulertuko da beste administrazioaren eskumengabetasun-deklarazioa kontuan hartzen ez duenean".

Transkribatutako aginduan bere eskumena urratutzat hartzen duen administrazioak bere ustez eskumenik ez duenaren inhibitzioa eskatzeko aurreikusitako bi hilabeteko epea eskumengabetasun-deklarazioaren kasuan ere aplika daitekeela hartzen du abiapuntu inplizituzat ZAEAk, eta uste du adierazitako epea 2010eko irailaren 6an hasi zela, egun hartan izan baitzuen Bizkaiko Foru Aldundiak ZAEAk egindako likidazioaren berri, erakundearen bitartez; beraz, 2010eko azaroaren 6a baino lehen egin behar zion inhibitzeko errekerimendua ZAEari.

Alegazioak ez du oinarririk, gatazka hau ez baita gatazka positibo bat, non bi administrazioek jardun jakin bat egiteko eskumena eurentzat eskatzen duten. Aitzitik, gatazka negatiboa da, eta administrazioetako batek eskumenik ez duela adierazten duenean eta eskumenari uko egin eta beste administrazioari lagatzen dionean sortu da eztabaida (besteak onartu egin dezake eskumena, ala ez). Kasu honetan, ZAEA ez da eskumenik ez duela adieraztera mugatu, likidazio-egintza bat emateko beharrezkoa den eskumena erabili baitu, likidazio horren funtsa BEZaren itzultzea ZAEaren ardura izan ordez Bizkaiko Foru Aldundiarena dela adieraztea izan bada ere. Gatazka negatiboa ZAEari

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

2011ko urtarrilaren 12an jakinarazitako Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumengabetasun-deklarazioarekin hasi zen. Eskumenaren isilbidezko baztertzea Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.1 artikuluko 5. paragrafoan aurreikusitako hilabeteko epea igaro ondoren gertatzen dela onartuta, adierazi beharra dago epe hori 2011ko otsailaren 12an bete zela. Egun horretatik aurrera, gatazka jartzeko epea hasi zen kontatzen (hilabeteko epea, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.2 artikulua araberak), eta 2011ko martxoaren 12an amaitu zen. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak bete egin zuen epe hori.

Bizkaiko Foru Aldundiak honako hau adierazi zuen 2013ko otsailaren 25eko azken alegazioetan (lehen aurrekaria, 5. puntua): "Bizkaiko Foru Ogasunak eskumengabetasun-deklarazio horren berri izan du... zergapekoak aurkeztu duen eta Bizkaiko Foru Ogasunean 2010eko irailaren 6an jaso zen idazkiaren bitartez". Hala ere, hori jakiteak ez du ZAEAREN egintzaren izaera aldatzen, eta, adierazi dugunez, egintza hori ez da Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.1 artikuluan aipatutako eskumengabetasun-deklarazio soil bat. Eta izango balitz ere, bi hilabeteko epea igaro izanaren ondorio bakarra (gatazka negatiboen kasuan epe hori eskumengabetasun-deklarazioari aplikatu dakiokeela pentsatuz gero) ZAEARI gatazka planteatzeko aukera ematea izango zen, eta ZAEAK ez zuen planteatu.

2. Gatazka honetan planteatutako sakoneko arazoa 1. ERAKUNDEAK 2004ko ekitaldian jasandako BEZA itzultzeko eskumena bi administrazioetako zeini dagokion finkatzea da.

Hasierako desadostasun bat dago gai horretan erabakitzeke aplikatu beharreko Ekonomia Itunaren arauaren inguruan. ZAEAREN ustez, arau hori Ekonomia Itunaren 27. Bat artikulua lehenera erregela da. Erregela horrek honako hau dio:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

"Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira:

Lehenengoa. Euskal lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek tributu guztiak dagokien Foru Aldundian ordaindu behar dituzte, eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dituzte".

ZAEAREN ustez, 2004ko ekitaldian erakundeak euskal lurraldean baino ez ziharduen; beraz, eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari baino ez dagokio, eta erakundearen egoitzak ez du garrantzirik.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, berriz, aplikatu beharreko araua Ekonomia Itunaren 27.Bat artikulua den hirugarren erregela da. Erregela horrek, kasu honetan aplikatu beharreko idazkuntzan, honako hau xedatzen du:

"Hirugarrena. Aurreko urtean 6 milioi euro baino eragiketa kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, tributuak Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte, zerga-egoitza lurralde erkidean baldin badaukate, eta zerga-egoitza Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion Foru Aldundian".

Agindu hori aztertu ondoren, Aldundiak argudiatu du 2004ko ekitaldian erakundearen eragiketa-bolumena 6 milioi euro baino txikiagoa izanenez gero irizpide erabakigarria helbidea dela, eta erakundea MADRILEN kokatuta zegoen, hau da, lurralde erkidean.

3. Hasierako gai horri irtenbidea emateko, Ekonomia Itunaren 27.Bat artikulua den egitura aztertu behar da, eta azterketa hori errazteko, osorik

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

transkribatuko dugu ondoren, gatazka honi lotutako gertakariei aplikatu beharreko idazkuntzan:

"27. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira:

Lehenengoa. Euskal lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga guztiak dagokien Foru Aldundian ordaindu behar dituzte; eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dituzte.

Bigarrena. Lurralde erkidean eta euskal lurraldean jarduten duten subjektu pasiboek zergak bi administrazioetan ordaindu behar dituzte, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioan. Proportzio hori zehazteko, hurrengo artikuluan jasotako lotura-puntuak erabili beharko dira.

Hirugarrena. Aurreko urtean 6 milioi euro baino eragiketa kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, tributuak Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte, zerga-egoitza lurralde erkidean baldin badaukate, eta zerga-egoitza Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion Foru Aldundian".

Transkribatutako aginduak arau orokor bat eta salbuespen bat biltzen ditu. Lehenengo eta bigarren erregeletan bildutako arau orokorrak eragiketak egin diren lekuaren irizpideari jarraitzen dio, eragiketen bolumena eta subjektu pasiboaren zerga-egoitza kontuan hartu gabe. Hirugarren erregelari bildutako salbuespenak, berriz, eragiketak egin diren lekuaren irizpidearen orde zerga-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

egoitzaren lekuaren irizpidea hartzen du kontuan, aurreko urtean 6 milioitik beherako eragiketa-bolumena izan duten subjektuen kasuan. Horrela, beraz, garbi dago lege-baldintzak betez gero ezohiko arauak duela aplikatzeko lehentasuna (lex specialis gisa) arau orokorraren aldean.

Kasu honetan, 1. ERAKUNDEAREN 2004ko eragiketa-bolumena (29tik 31ra bitarte, hain zuzen ere) zero izan zen, erakundea ez baitzen hasi bere jarduera osatzen duten ondasunak eta zerbitzuak ematen BIZKAIKO denda jendearentzat ireki zen arte (2005eko martxoaren 1ean). Izan ere, Ekonomia Itunaren 27.Bi artikuluari jarraiki, "eragiketen zenbateko osoa hauxe izango da: ondasunak ematerakoan eta zerbitzuak egiterakoan subjektu pasiboak lortu dituen kontraprestazioen zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua alde batera utzita, halakorik badago".

Kasu honetan, ez dago eztabaidan 1. ERAKUNDEAK azalera-eskubidea eskuratzean jasandako kuotaren kengarritasuna, BEZa arautzen duen abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 111. artikuluari eta hurrengoei, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko BEZari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 111. artikuluari eta hurrengoei jarraiki. Eztabaida kuota hori itzultzera behartuta dagoen Administrazioaren ingurukoa baino ez da.

1. ERAKUNDEAREN 2004. urteko eragiketa-bolumena zero izan denez gero, Ekonomia Itunaren 27.Bat artikulua hiru garren erregelaren arau berezia aplikatu behar da. Izan ere, arau horren arabera, BEZa ordainarazteko eskumena subjektu pasiboaren zerga-egoitza kokatuta dagoen lurraldeko Administrazioari dagokio.

Erakundeak aitortutakoa lurralde erkidean kokatuta zegoen, eta, beraz, 2004ko BEZa itzultzeko eskumena Estatuko Administrazioari zegokion funtsean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

Bestalde, Auzitegi Gorenak berretsitako (2010eko martxoaren 3ko epaia – 538/2009 errekurtsua–, 2010eko ekainaren 10ekoa –378/2009 errekurtsua– eta 2010eko ekainaren 17koa –529/2009 errekurtsua–) Arbitraje Batzorde honen doktrinari jarraiki, BEZa ordainarazteko eskumena zergadunaren zerga-egoitzaren arabera den eta egoitza hori aldatzen den kasuan, aldaketaren unean geratzen diren saldoak, nolahi ere, saldoa sortu zen likidazioaldian zerga ordainarazteko eskumena zuen Administrazioak itzuli beharko ditu, eta betebeharrak hori ez zaio egoitza berriko Administrazioari eskualdatuko.

4. Egoitza-aldaketaren kasuetan BEZaren saldoak lekualdatzeko aukera baztertzeko duen doktrina aztertu ondoren, defendaezina da ZAEAk 1. ERAKUNDEAK eskatutako itzultzea egiteko duen betebeharraren kontra emandako argudioa (2012ko abenduaren 19ko alegazio-idazkiaren 11. orrialdea): erakundeak jarduera hasi aurretik aurkeztu zion ZAEari BEZa itzultzeko eskaera; Bizkaiko Foru Ogasunean, berriz, jarduera hasi ondoren aurkeztu ziren BEZaren aitorpenak, eta Ogasun horretan ordaindu zen zerga. ZAEAREN ustez, jardun hori "BEZaren egitura eta sistematikaren kontrakoa izango litzateke; izan ere, geroago jarduerari dagokion zerga horren bidezko diru-sarrerekin konpentsatuko direlako baimentzen dira jarduera hasi aurreko kenkari batzuk".

Hala ere, ez dago ZAEAk aipatutako lotura berezi hori ondasun edo zerbitzuen eskuratzeen kasuan "enpresa-jarduerari edo lanbide-jarduerari dagokien ondasun-emateak edo zerbitzugintzak ohi bezala egiten hasi aurretik" (BEZari buruzko Legearen 111. artikulua) jasandako edo ordaindutako kuoten kenkariak eta ohiko jardueraren ondorioz sortutako kuoten artean. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren doktrinak (1985eko otsailaren 14ko epaia, gaia: C-268/83, Rompelman; 2006ko otsailaren 29ko epaia, gaia: C-110/94, Inzo; eta 2000ko martxoaren 21eko epaia, gaia: C-110/98 eta metatuak, Gabalfrisa) ezarrita BEZari buruzko Legearen aldaketak egin ondoren, ez da

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

egokia "jarduera hasi aurreko" eragiketengatiko kenkariak direla esatea. Ildo horretan, BEZari buruzko Legearen 5.Bi artikulua xedatzen duenez, "zerga honen ondorioetarako, enpresa- edo lanbide-jarduerak ondasunak edo zerbitzuak jardueretan erabiltzeko asmoz (elementu objektiboen bidez berretsi da asmo hori) eskuratzen diren unean hasitzat joko dira". Kuota horiek itzultzeko, 115. artikuluan (BEZari buruzko Legearen 111.Hiru artikuluan) bildutako arau komunei jarraituko zaie. Horren ondorioz, eragiketa horiengatik (kasu honetan, 1. ERAKUNDEAK azalera-eskubidea eskuratu izanagatik) jasandako BEZaren itzultzeak ez dakar inolako berezitasunik Ekonomia Itunaren esparruan Administrazio eskuduna finkatzeari dagokionez.

5. Hala ere, ZAEAk argudiatu du erakundearen zerga-egoitza BIZKAIAN zegoela Ekonomia Itunaren 43.Lau.b) artikuluan bildutako araua aplikatuta eratu zen unetik. Artikulu horrek, zehazki, honako hau dio:

"Lau. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da:

(...)

b) Pertsona juridikoak eta Sozietateen gaineko Zergaren menpean dauden gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute sozietate-egoitza eta, betiere, sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilia bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan".

Beraz, agindu hori aztertu ondoren, beharrezkoa da 2004ko abenduaren 29an eratu zenetik 2005eko otsailaren 15ean egoitza BIZKAIRA eraman zuen arte 1. ERAKUNDEAREN zerga-egoitza egon zen lekua finkatzea. Bizkaiko Foru Aldundiak aurkakoa dioen arren, gai hori ez zen behin betiko ebatzita geratu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

zergadunen zerga-egoitzaren inguruan dauden desadostasunak ebazteko adiskidetasunezko prozedura (Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusia eta ZAEAk eta Foru Aldundiek 2006ko maiatzaren 18ko bileran elkarrekin onartutako "Lantaldearen egoitza-aldaketei buruzko ondorioek" garatua) eten izanagatik, nahiz eta ZAEAk adiskidetasunezko prozedura bidegabeki bertan behera utzi eta beretzat hartu zuen BEZa ordainarazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 27.Bat artikuluko lotura-puntuen okerreko interpretazio baten ondorioz. Eta funtsezko arrazoi batengatik da hori horrela: izan ere, puntu horretan, bi administrazioen arteko desadostasunak bere horretan dirau, eta, azken batean, Arbitraje Batzordeari dagokio ebaztea, Ekonomia Itunaren 43.Sei artikuluari jarraiki. Erakundearen zerga-egoitzaren lekua finkatzea ezinbestekoa da gatazka hau konpontzeko, ZAEAk onartzen duenez (2012ko abenduaren 19ko idazkiaren zortzigarren alegazioa), eta kontraesanean dago bere tesiarekin, hots, aplikatu beharreko lotura-puntua eragiketak egiten diren lekua dela dioen –eta baztertu dugun– tesiarekin.

6. Aurreko ebazpenetan, "administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza" nozioa kontzeptu juridiko zehaztugabea dela hartu dugu abiapuntutzat, eta nozio hori zehazteko, kasuaren zirkunstantzia guztiak hartu behar dira kontuan (besteak beste, honako ebazpen hauek: R3/2012, 2012ko martxoaren 30ekoa (espedientea: 31/2008); R7/2012, 2012ko maiatzaren 11koa (espedientea: 36/2008); R13/2012, 2012ko irailaren 28koa (espedientea: 9/2010); R18/2012, 2012ko abenduaren 27koa (espedientea: 19/2010); eta R14/2013, 2013ko uztailaren 24koa (espedientea: 31/2010).

Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak berretsi egin zuen irizpide hori 2013ko urriaren 17ko epaian. Epai hori Arbitraje Batzorde honen ebazpen baten aurkako 538/2012 errekurtsioan eman zen, eta zuzenbideko 5. oinarriak honako hau dio:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

"Zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza' esaera legez zehaztu eta mugatu gabeko esaera konplexua da, eta kasuz kasu gauzatu behar da. Ildo horretan, kasu bakoitzeko zirkunstantzia objektibo zehatzen arabera ez ezik, dagokion sozietate zehatzaren eta, bereziki, sozietateak egiten duen jardueraren arabera txertatu behar da. Lokalak edo biltegiak, enpleguak (asko edo gutxi), jardura partzial batzuk edo besteak garatzen diren lekuak, administrazio-organoaren bilerak egiten diren eta erabakiak hartzen diren lekua, sozietate-liburuak zaintzen diren lekua eta abar izatea garrantzi handiagoa edo txikiagoa duen, baina berez –enpresa-jardueraren funtsezko datua kontuan hartu ezean– ezer adierazten ez duen zantzua da".

Auzitegi Gorenak honako kontsiderazio hau gaineratu zuen:

"Kontuan hartu behar da, halaber, legegileak berak identifikatu egiten dituela egoitza soziala eta zerga-egoitza, betiere adierazitako betekizunak betetzearen baldintzapean; nolahi ere, horiek alde batera utziz gero, egoitza soziala hartu behar da kontuan zerga-harremana ezartzean. Edonola ere, ez dira baztertu behar zenbait printzipio, hala nola enpresa-askatasuna edo ezartzeko askatasuna, azken batean pertsona juridikoak kudeaketa eta zuzendaritza nahi bezala garatzeko aukera legitimoa ahalbidetzen baitute, zerga-eremuan ezarrita dauden eta zerga-harremanaren berezko ondorioak eta ondorio juridikoak dakartzaten legeko betekizunak bete beharra aparte utzi gabe".

Aurreko orientazioak kontuan hartuta, zirkunstantzia guztiak aztertu behar ditugu eta, guztiak balioetsita, aztergai dugun aldian 1. ERAKUNDEAREN administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza zein lekutan gauzatzen ziren zehaztu behar dugu.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

7. Erakundearen egoitza erakundea eratu zenetik BIZKAIAN zegoela dioen ZAEAREN tesiaren oinarri diren zirkunstantziak ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziaren Ikuskatzaitzako Eskualde Bulegoaren txistenean azalduta daude. Txostena 2009ko otsailaren 17koa da, eta 2009ko urriaren 7ko eta 24ko eginbideetan islatutako datuak ere jasota ditu. Adierazitako txostenak bi aldi bereizten ditu: a) 1. ERAKUNDEA eratu zenetik (2004ko abenduaren 29an) merkataritzagunea ireki zen arte (2005eko martxoaren 1ean), eta b) Merkataritzagunea ireki zenetik gaur arte.

a) Aldi horietako lehenari lotutako zirkunstantziak, laburbilduta, honako hauek dira:

- Langileak BIZKAIAN dagoen bulego batetik kontratatu ziren.
- Langileak hautatzeko prozesua bulego horretatik egin zen, baita 1. ERAKUNDEA eratu aurretik ere.
- Azken batean, 1. ERAKUNDEAK 1. BAZKIDEA SAK BIZKAIKO bulego horretatik egiten zuen jarduerarekin jarraitzen du.
- Erakundearen jarduerari buruzko dokumentazioa BIZKAIKO bulegoan zegoen artxibatuta, eta merkataritzagunea ireki ondoren, bertan.
- Adierazitako bulegoa BIZKAIAN kokatuta zegoen, 1. BAZKIDEAK errentan hartutako lokal batean.
- Lokal horretan, hiru pertsonak ziharduten era jarraituan (horien lan-kontratuak erantsita daude), eta, aipatzen denez, pertsona horiek "zuzendaritza-batzordekoak" ziren, eta BIZKAIKO merkataritzagunearen eguneroko kudeaketaz arduratzen ziren. Pertsona horiek, beste batzuekin

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

batera, arloen arduradunak ziren, eta merkataritzagunea abian jartzeko beharrezkoak ziren jardunak egiten zituzten (Administrazioarekiko harremanak, ordainketak, langileen kontratazioa, kontabilitatea eramatea eta abar). Obren jarraipena taldeko hedapen-taldeak egiten zuen. Taldeak Madrilen zuen egoitza, eta pertsona bat izan zuen Bilbon hainbat hilabetetan, obren jarraipena egiteko.

- Adierazitako bulegoan, segurtasuneko burua eta mantentze-lanetako burua zeuden era jarraituan.

- Pertsona horiek guztiak 1. BAZKIDEA, SAko enplegatuak ziren, eta, geroago, 1. ERAKUNDEAK ordeztu zuen adierazitako enpresa enplegatzailer gisa.

- Erakundea eratu zen egunean, Administrazio Kontseiluko kideak Espainiatik kanpo bizi ziren, eta organo horren berezko funtzioetan esku hartzen zuten, ez, ordea, erakundearen eguneroko jardunean.

- Ahaldun gehienak Bizkaian bizi dira, edo bizi izan dira.

b) Txostenean adierazten denez, eta erakundearen jardura kontuan hartuta, logikoa da ondorioztatzea merkataritzagunea ireki zenetik eguneroko eta ohiko jardueraren administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza lan-jardura merkataritza-establezimenduan bertan egiten zuten arloetako arduradunak egiten zutela. Horren ondorioz, 1. ERAKUNDEA eratu zenetik, haren eguneroko jardueraren administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza BIZKAITIK egin da, hau da, erakundeak gaur egun zerga-egoitza duen lekutik, alegia.

Nolanahi ere, 1. ERAKUNDEAK osatzen duen taldearen erabakiak hartzeko gunea ez dago Bizkaian, eta, beraz, jarraibide handiak eta taldea eraginpean

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

hartzen duten erabakiak ez dira Bizkaian hartzen. Ondoriozta daiteke, beraz, erakundearen kudeaketa eta zuzendaritza ez daudela ez Madrilen, ez Bizkaian zentralizatuta. Hortaz, bidezkoa izango litzateke ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekuaren irizpide subsidiariora jotzea. Leku hori, 2004. urtetik aurrera (hots, 2004ko abenduaren 29ko eskrituran azalera-eskubidea eratu zenetik aurrera), BIZKAIKO merkataritzagunea da.

8. Bizkaiko Foru Aldundiak ZAEAREN aurka duen iritzia oinarri diren zirkunstantziak Foru Ogasunaren Ikuskatzaileak zerga-egoitza egiaztatzeko jardunei buruz egindako 2009ko maiatzaren 29ko txostenean azalduta daude. Txosten horrek, halaber, gertakariak jasotzeko 2009ko apirilaren 22ko eta maiatzaren 12ko bi eginbideren edukia biltzen du. Laburbilduta, honako hauek dira zirkunstantzia horiek:

- Erakundearen 2004. urteko kontabilitate-liburuak eta kontabilitate-egiaztagiria ERAKUNDEAREN TALDEAK MADRILEN duen artxibo nagusian gordailututa zeuden.
- Leku horretan, halaber, 2004ko BEZari eta 2004/2005 ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergari zegozkien eta erakundearen zerga-egoitzan ez zeuden aitortpenak zeuden gordailututa.
- Erakundeak ez zuen langilerik 2004. urtean, eta lehen kontratazioak 2005. urtean egin ziren, hau da, 1. ERAKUNDEA lan-kontratu jakin batzuetan subrogatu zen urtean, alegia.
- 2004. urteari dagokionez, 1. BANKUAREN ziurtagiri bat aurkeztu zen, Madrilen irekitako kontu bati buruzkoa. Bertan, ERAKUNDEAREN TALDEKO finantza-zuzendaria agertzen zen 1. ORDEZKARI baimendu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

gisa. Kontu horretarako erreferentziazko egoitza MADRIL zen. 2004. urtean, 1. ERAKUNDEAREN titulartasunpeko kontu bakarra hori izan zen.

- Administrazio Kontseiluaren 2004ko abenduaren 30eko bilera MADRILEN egin zen.

- Erakundeko ahaldunek 1. BAZKIDEA SAko langile gisa ematen zituzten beren zerbitzuak.

- BIZKAIKO bulegoaren errentamendu-kontratua 1. BAZKIDEA SAK izenpetu zuen zuzenean.

- Azalera-eskubidea eratzeko eskritura MADRILGO notario 1. NOTARIOA jaunaren aurrean egin zen, eta 1. ORDEZKARIA izan zen hitzezko mandataria.

- Notario horren beraren aurrean, BIZKAIKO dendaren obra berriaren deklarazioaren eskritura egin zen 2005eko urtarrilaren 17an.

- 2009ko maiatzaren 12ko eginbidean, erakundearen ordezkariaren adierazpenak daude jasota. Horien arabera, merkataritzagune berria 1. BAZKIDEA, SAREN Hedapen Sailaren lankidetzan oinarrituta egingo zen, lantalde nazional propioa zuen proiektuko liderrarekin eta ERAKUNDEAREN NAZIOARTEKO TALDEAN txertatutako lantaldeekin koordinatuta.

Guneak eraikitzeko, 1. BAZKIDEA, SAK jardun zuen sustatzaile gisa, eta obrak "paketeen" sistemaren bidez egikaritu ziren, hau da, eraiki beharreko gunearen zatiak kontratatu ziren hainbat enpresarekin. Hedapen Sailak eta proiektuko liderrak egin zituzten eraikuntzako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

hornitzaileekiko negoziazioak eta ondorengo faseen jarraipena: kontratua sinatzea, aurrekontua kontrolatzea, obra-ziurtagiriak onartzea, hornitzaileentzako ordainketa-aginduak eta abar.

Prozedura horri berari jarraitu zitzaion BIZKAIKO merkataritzagunearen kasuan, eta 1. BAZKIDEA SAK enplegatutako pertsona bat izan zen proiektuko liderra. Hedapen Sailak, zirkunstantziaren arabera, 1. BAZKIDEA SAK enplegatutako pertsona bat bidaltzen zuen BIZKAIRA, obren jarraipena egin zezan. Oro har, esan daiteke 1. BAZKIDEA, SAREN Hedapen Sailak hartu zituela bere gain gunearen eraikuntza bultzatu, koordinatu eta ikuskatzeko funtzioak, obrak amaitu eta denda ireki arte. Eta azalera-eskubidea eratu ondoren ere, hornitzaileekiko harremanak 1. BAZKIDEA, SAKo langileek ezarri zituzten. Langile horiek bidezko kontratuak egiten, fakturatzen eta ordaintzen zituzten, eta, aldi berean, 1. ERAKUNDEARI kobratzen zizkieten. Lokala jendearentzat irekitzeko moduan egon arte jarraitu zitzaion prozedura horri.

Erakundearen ordezkariak adierazi zuenez, 1. BAZKIDEA, SAK kontratatu zituen eta BIZKAIKO bulegoan zeuden langileek, besteak beste, denda kudeatu, dendaren kokapenari buruzko azterketak egin, beharrezkoak ziren langileen kopurua finkatu eta tornu eta kaxen kopurua finkatzen zuten; lokala abian jartzeko baldintzetan jarri arte, administrazio publikoen arteko harremanak (zergak, irekitzeko lizentziak eta abar) eta sortzen ziren gai juridikoak 1. BAZKIDEA, SAK kudeatzen zituen; egoitza BIZKAIRA lekualdatu arte, Administrazio Kontseiluaren eta Bazkideen Batzarraren bilera guztiak erakundearen egoitzan (MADRILEN) egiten ziren; eta erakundeak langile propioak izan arte, erakundearen finantza- eta administrazio-kudeaketak 1. BAZKIDEA, SAK egiten zituen, sozietate horretako finantza-zuzendari 1. ORDEZKARIAREN zuzendaritzapean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

9. Zerga-egoitzaren inguruko eztabaidari lotutako aldia 1. ERAKUNDEA eratu zenetik (2004ko abenduaren 29an) egoitza BIZKAIRA lekualdatu zuenera (2005eko otsailaren 15ean) bitartekoa da. Aldi horren aurretik, erakunde hori ez zegoenez gero, ez dago gaia zertan planteatu: Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten ziren jarduera guztiak (BIZKAIKO merkataritzagunea ezartzera bideratuta zeudenak, alegia) zegoen erakunde bakarrak egiten zituen, jakina (1. BAZKIDEA, SAK). Bada, azaldutako zirkunstantziek ez diote oinarririk ematen 1. ERAKUNDEAREN eraketarekin alderdi hori aldatu egingo zela, hau da, une horretatik aurrera jarduera horiek guztiak sozietate horrek egingo zituela eta, beraz, arestian esan dugunez une horretan denda irekitzera zuzenduta zeuden jarduera horien kudeaketa egoitza artean lurralde erkidean zuen erakunde berriak egingo zuela zioen tesiari. Erakundearen ordezkariak, aldiz, horren kontrakoa adierazi zuten, hau da, 1. BAZKIDEA, SAK jarduera horiek egiten jarraitu zuela, eta hori bat dator enpresa-logikarekin eta logika komunarekin. Logika horiek iradokitzen dutenez, ez luke zentzurik izango adierazitako tesiaren araberako antolamendu-aldaketa bat egiteak hilabete eta erdiko aldi baterako.

Bestalde, ERAKUNDEAREN TALDEAK Euskal Autonomia Erkidegoan egindako jarduerak talde horretako zein erakunde zehatzek egin zituen alde batera utzita, 1. ERAKUNDEAREN egoitza BIZKAIRA lekualdatu aurretik jarduerak zuten izaera kontuan hartuta nekez koka daitezke leku horretan erakundearen administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Izan ere, espedientean jasota dauden zirkunstantzietatik argi eta garbi ondoriozta daitekeenez, jarduera horien helburua, berriz esango dugu, BIZKAIKO merkataritzagunea eraikitzea eta abian jartzea zen. Beraz, jarduera teknikoak ziren funtsean: kokapena, proiektu teknikoa, obren zuzendaritza, administrazio-kudeaketak, langileen hautaketa eta abar. Guztiak erakundearen administrazio-kudeaketaz eta negozioen zuzendaritza bestelako jarduerak ziren.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

Horri dagokionez, Arbitraje Batzordeak, honekin antz handia duten kasu batzuetan, adierazi zuen instalazio bat eraiki eta ezartzeko jarduerak ez zirela administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, jarduerak egiten zituen erakundearen zerga-egoitza finkatzearen ondorioetarako. Adibidez, honako ebazpen hauek aipa daitezke: R1/2008, 2008ko azaroaren 24koa (espedientea: 1/2008) eta R1/2009, 2009ko urtarrilaren 28koa (espedientea: 2/2008); biak Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak berretsi zituen, 2010eko otsailaren 4ko (86/2009 errekurtsua) eta 2009ko ekainaren 16ko (155/2009 errekurtsua) epaietan, hurrenez hurren. Auzitegi Gorenak babestuta, Arbitraje Batzordeak iritzi horri eutsi dio honako ebazpen hauetan: R14/2013, 2013ko uztailaren 24koa (espedientea: 31/2010), 15. FD, eta R16/2013, 2013ko irailaren 9koa (espedientea: 4/2011), 8. FD.

Aurreko kontsiderazioei jarraiki ondoriozta daitekeenez, 1. ERAKUNDEAREN zerga-egoitza, 2004ko abenduaren 29tik (hots, eratu zen egunetik) 2005eko otsailaren 15era (hots, egoitza soziala BIZKAIRA lekualdatu zuen egunera) bitarteko aldian, MADRILEN egon zen.

Aurreko ondorioa kontuan hartuta, ez da beharrezkoa ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekuaren irizpidera jotzea.

10. 1. ERAKUNDEAREN zerga-egoitza lurralde erkidean finkatuta, Ekonomia Itunaren 27.Bat.Hirugarrena artikuluan ezarritako lotura-puntuaren aplikaziotik ondoriozta daiteke 2004. urteko BEZa ordainarazteko eta, beraz, urte horretan erakundearen alde geratzen den saldoa itzultzeko eskumena ZAEari dagokiola.

Horri jarraiki, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2011	R4/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. 2004. urteko saldoak itzultzea

2004. urtean 1. ERAKUNDEAREN (IFZ: ---1) alde geratzen zen BEZaren saldoa itzultzeko eskumena Zerga Administrazioko Estatu Agentziari dagokiola deklaratzeari buruz.